

## INTERKOOPERAZIOA KRISI GARAIAN

# Elkar zaindu eta elikatzearen garrantzia

Duela mende eta erdi nola orain, ekonomia sozialaren balio garrantzitsuenetako bat izan da proiektu kooperatiboaren arteko lankidetzak. 2008an lehertu eta pandemiarekin areagotu den sistema neoliberalaren krisiak, ageriago utzi du txikien artean elkar zaindu eta elikatzeko behar hori. Euskal Herrian interkooperazio egitasmo berriak ari dira erretzen apurka; horietako bat da Gipuzkoako Beterri-Buruntza eskualdean bultzatzen ari direna.

 URKO APAOLAZA AVILA  BIRA PRODUKZIOAK

Interkooperazio hitzak ez du misterio handirik: kooperatiben arteko lankidetzari esaten zaio, ekonomia sozialari lotuko bada. Hitza ez da hain zaharra, ideia ordea, kasik kooperatibismoaren sorreratik iritsi zaigu, mugimendu kooperatiboaren garaian garaiko zailtasunei aurre egiteko printzipio gisa.

Dena Manchesterren hasi omen zen, Lehen Industria Iraultzaren sorrerak eta sehaska izan zen hirian.

XIX. mende erdialdean ikatz

hautsez tindatuta, base-

rrietatik migraturiko

eta baldintza penaga-

rritan pilatutako mila-

ka lagunaren topaleku,

Amerikarako beltzen

esklabotzatik bizi zen

ekonomia baten beste

aurpegi ilun bat baino

ez zen metropoli erral-

doia. Aurrerakuntza tekno-

logikoen eta industriaren elek-

trifikatzeak langile prekario horien

panorama gehiago okertzea ekarri zuen,

langabezia handitu eta kondizioak kas-

kartu baitziren. Manchesterretik ez oso

urrun, Rochdale izeneko hirian, ehun-

gileek greba bortitzak egin zituzten en-

plegua defendatzeko, eta testuinguru

zail horretan sortu zuten 1844an lehen kooperatiba elkarteak 28 bazkidek, *Rochdaleko aitzindariak* deiturikoek. Kooperatibismoaren sorrera hartan, helburu ekonomikoetatik haragoko balio eta printzipioak ezarri zituzten, eta horien artean elkar laguntza zegoen, kooperatiben arteko integrazioaren bidez.

Geroago, Nazioarteko Kooperatiba Aliantza sortu zenean, ideia hori etengabe bultzatu zuten erakunde horren barruan; baina 1995ean Manchesterren egin zen kongresura

arte ez zen esplizitatu ko-

operatibagintzaren prin-

tzipio gakoetako bat

zela enpresek euren

artean laguntzea.

90eko hamarkada-

ko globalizazioaren

eztanda betean, eko-

nomiaren nazioarte-

kozteak kooperatiben

mugimenduari zekarz-

kion erronkei aurre egiteko tresna

gisa ulertzen zen interkooperazioa.

Ordutik –eta lehenagotik ere– munduko

makina bat erakunde eta talde koopera-

tibo handitan saiatu dira “oinarriko so-

lidaritate horren kontzientzia hartzen”,

Mondragon korporazioak 2017ko Kon-

gresuan aipatu zuen bezala. Baina inter-

kooperazioak ertz eta hari mutur ugari izan ditzake, nondik eta norantz joateko egiten den.

## LURRALDEKO INTERKOOPERAZIOA

Merkatuaren mundializazioak hedatu zuena, paradoxikoki, orain gertukoaren beharrak ere akuilatu du. Pandemiak ezer azalerazi badu, hori lurraldean errotutako ekonomia sendo eta saretu bat edukitzearen garrantzia izan baita. Hain zuzen, lurraldean interkooperatzearen ideia hori garatu zuten Usurbilen, otsailaren 11n *Beterri Saretuz*-ek antolatutako lan saio batean. Beterri-Buruntza eskualdean parte-hartzean oinarrituriko enpresen ekosistema bat sortzeko abian jarri duten programaren barruan bildu ziren enpresa eta tokiko eragileak.

Interkooperazioak baditu egungo eredu sozioekonomikoari kontrajarritako ezaugarri berezko batzuk: lankidetzaren lehenestea lehiari, elkartasuna indibidualtasunari, edo hazkunde eta kapital metaketa hutsa baino, iparrorratza izatea etekinak birbanatu eta pertsonen bizigarritasuna lortzea. Usurbilgo saioan azpimarratu zuten, sektore bereko edo merkatuari loturiko lankidetzetatik harago, territorio berean sareak eta egitura mankomunatuak sortzeko

Enpresen arteko harremanak lehenik ere hor izan arren, informaltasunaren jantziarekin ez dira erraz antzematen

baditu bere onurak. Adibidez, lurralde horrek hainbat arlotan dituen erronkei kolektiboki erantzuteko gaitasuna eman dezake: genero arrakala gainditzeko, ja-sangarrtasuna bermatu eta ingurumena babesteko, aniztasuna aitortzeko... Jendartearen eraldaketa txikitik eta oinarritik hasia bultzatzen du interkooperazio territorialak.

Askotan, gainera, enpresen arteko harremanak lehenik ere hor izan arren, informaltasunaren jantziarekin ez dira erraz antzematen. *Beterrri Saretuz*-eko saiora hurbildu ziren enpresetako kideei ariketa bat eginarazi zieten. Lehenik, hainbat galderari erantzun: Proiekturik aurkeztu al duzu beste enpresa edo eragileren partaidetza eta

kolaborazioa eskatzen duena? Eta diru-laguntzarik eskatu? Barne kudeaketarekin zerikusia duen kontsultarik egiteko jarri al zara kontaktuan inorekin? Zeinekin duzu zerbitzu-bezero harremana? Eskualdeko zein beste eragilerekin egin duzu lan azken urtean?... Oskolaren azpian izen zerrenda luze bat biluzten hasten da orduan. Gero, mapa handi batean izen horiek guztiak elkar gurutzatu zituzten, euren artean jositako erlazio motei kolore bana jarriaz, lurraldeko interkooperazio atlas korapilatsua denen bistan azaleratu arte.

Ariketa ez da debaldekoa, lankidetzak formalizatu eta instituzionalizatzea bilatzen du. Interkooperazioa

berez sortzen den gertakaria baino, elikatu beharreko gako estrategikoa delako euren ustez. Egituraketa horren bidez sortuko dira aukerak aprobe-txatzeko eta zailtasunei aurre egiteko tresna partekatuak, mutualismorako proiektuak kasu. Hori da, adibidez, OlatuKoop ekonomia sozial eta eraldatzailearen sareko ildoetako bat. Elkar laguntzeko eta sozializatzeko interes horrek, abantaila handia ematen die enpresa komunitarioei enpresa kapitalistekiko, batez ere krisi garaietan, nola enplegu duinari eusteko edo laneko proiektu burujabe eta asegarriak egiteko. Pandemiarekin sarritan entzun dugun leloak ondo laburbiltzen du: bakarrik ezin da, lagunekin bai. ●

## INTERKOOPERAZIOAREN ATLASA

'Beterrri Saretuz' programa barruan joan den otsailean Usurbilen antolatutako saioan, enpresa, erakunde eta eragileen arteko interkooperazio sareak agerian uzteko ariketa egin zuten; lankidetzak formalizatzea estrategikoa da euren ustez.

